

# Igone Revillarekin solasean

## Soziologoaren irudia hiri-planeamenduan

Gako-hitzak:  
Hiri-soziologia, auzo-identitatea,  
hiri globala, etorkinak,  
gentrif kazioa



Ibai Gandiaga °

*Ikuspegi tradizional batetik, modernitateak arkitektoa espazioaren, eraikitakoaren eta hiriaren sortzailetzat hartu du. Mugimendu Modernoaren etorrenarekin batera hainbat proiektu, hala nola Le Corbusierren La Ville Radiuse, Lloyd Wrighten Broadacre City edota Soriaren Ciudad Lineal egitasmoak, hiri modu teorikoan sortu daitekeen izaki bat dela konbentzitzen saiatu dira. Lucio Costak, Brasilian, pentsamendu bonen adibidea burutu zuen. Ondoren, postmodernitatea beldu zen, iraganeko metodo eta tokiko tipologiaren berreskuraketarekin, hiri-ebunaren azterketari indar berrituekin ekinez. Ez zen, aitzitik, hiriak mugitzeko beharrezkoa duen osagai nagusia ez er hitz egiten: gizarteaz, alegia.*

*Igone Revilla bi alderdi horien artean, hirigintza eta gizarteaz, zubiak eraikitzen dituen profesional bat da. Zientzia Politiko eta Soziologian lizentziatua da, eta Industri eta Hiri Soziologian espezializatu zen, eta bere ikasketei bukaera eman zien Hiri Planifikazioako graduondo bat burutu zuen Westminsterreko Unibertsitatean. Hain zuzen ere, mundu anglosaxoian hain errota den "urban planner" irudiak hiriaren hainbat alderdi hartzen ditu kontuan, hirigileek obikoa duten alde morfologikoaz beste: afera soziala, ingurumenekoak, genero-ikuspegiak, edota paisaiagintza.*

*Igonerekin hitzordua hartzen dut Zamudion, lanpostu duen Tecnaliaren egoitzan, bere lanari buruz aritzeko. Garapen iraukorra alderdi sozioekonomikoen inguruan egiten du lan, hirietan eta gune historikoetan, tokiko dinamizazio- eta partaidetza-estrategiak ere gauzatu, hiri-guneetako berreskurapenarekin betiere lotuta.*

### Hiria zer den definitzerik bai?

Nire iritziz, hiriaren definizio bat, egon daitezkeen ugari eta oso zuzenen artean, zera litzateke: **topaketa-puntuaren segida bat**. Nire aburuz, hiri batez ere jendea eta komunikazioa da, transakzio oro egiten diren tokia, bai ekonomikoak, bai sozialak, bai pertsonen arteko harremanak edo bai jakintza-transakzioak. Transakzio horietatik jaiotzen da hiriaren dinamismoa.

Jakina, egitura baten beharra dago, ehun baten beharra, araudi bat, zerbitzuak. Baina hiriaren funtsa espazio publikoan datza. Espazio publiko hori gabe, ezinezkoa da hiri; bestelako hainbat gauza izan ezean ere ez, baina pertsonen arteko interakzioa oinarritzakoa da, eta interakzio hori espazio publikoetan gauzatu behar da, derrigor.



Irudia: Ibai Gandiaga

**Tradizionalki, hiria gune artifizialetan eta herria gune naturalan irudikatu dira, hiria eta natura kontrajarritik. Nabarmentze hori zuzena, edo onargarria, iruditzen zaizu?**

Nire aburuz, hiri-gunea edo urbanoa, kitzikagarria da: jendez gainezka, elkarremate asko... Ez dut ikusten hiriaren eta naturalaren arteko dikotomiarik, hots, hiria presaka eta estu ibiltzeko tokia denik. Jakina, maiz horrela izaten da, baina ez du zertan naturarekin kontrajarria egonik. Gero eta ekimen gehiago egiten dira natura hirian txertatzeko; ez da izango, aitzitik, natura zati ikusgarriarik, baina natura zatitxo horiek hiria bizigarriago bilakatzen dute. Benetako jasangarritasunaren erronka handi bat horretan datza, hots, natura hirian txertatzean: baratzeak, fatxada berdeak, La Habanan dauden balkoi berde horiek, janariaren urritasunagatik sortutakoak...

**Auzoak hiri barneko hiri txikiak al dira? Izan beharko lirateke? Egitura berezituak izan behar dira, beste inoren laguntzarik gabe bizitzeko gai?**

Auzoek besteen beharra badute ere, bizilagunen unibertso propioa bilakatzeko entitate nahikoa izan beharko lukete. Beraien auzoak modu horretan sentitzen dituen makina bat jende dago. Bilbon egindako analisisetan, horrela ikusi daiteke, batez ere adineko jende multzoetan, mugikortasun txikiagoa dutenen artean, alegia. Mugikortasun faltak, edo beraien bizi-moduek, auzoa beraien unibertso bilakatzen du. Horregatik, zure auzoan egunerokotasunak eskatzen dizkizun aktibitateak bete baldin baditzaitez, toki guztiz bizigarria bilakatuko da. Zure auzoa, ordea, logela-auzoa bada, eta topaketa- edo interakzio-espaziorik gabekoa, mugikortasun eza erakutsi duen kolektibo hori bere etxeko lau hormen artean biziko da.

**Aipatzen duzun logela-auzo tipologia hori ugaria al da geurean?**

Baietz esango nuke, 60ko eta 70eko hamarkadetan eraikitako poligonoak kasu; izan ere, jendeak gutxika laga du auzoa, dendak pixkanaka ixten joan dira. Bertatik kanpo bizitzeko baliabiderik ez dutenak gelditzen dira, beraien egoera ekonomiko noiz hobetuko esperoan, hortik alde egiteko. Auzoak desertu bilakatzen dira.

Azkenengo urteotan eraikitako auzo anitz etxebizitza-poligonoen antzekoak dira, hein handi batean: hutsik gelditzen diren etxabe komertzialak, sotoan diseinatuak diren aparkalekuak, kalitatezko interakzio-espaziorik gabe, bizilagunarekin topatzeko aukerarik gabe sortuak... Auzo hauetan, nahiz eta dentsitate altua izan, bizitza txalet adosatuetan egiten da, baina mugikortasun-arazoak sailhestuz. Azken finean, albokoarekin ez tratatzeko daude diseinatuak, eta hori da, hain zuzen ere, auzoaren funtsa, zure bizilagunarekin harremanak izatea.

Jendearekin eguneroko harreman hori desagertzean, identitatea lausotuz joaten da. Auzora heldu berri den norbaitek erlazio horiek lortzeko gauza ez bada, auzo-identitate hori ezin izango da sortu.

**Zein da hiriaren identitate-erakuntzak duen areririk handiena? Eta lagunik handiena?**

Identitate-erakuntzaren aferan, parte-hartze gabetza da areririk handiena, nire ustez; auzoa modu jakin batean jaiotzea, eta tupustean, erabaki politiko baten eskutik, auzoak bestelako

nortasun bat izateko erabakia hartzea, biztanleriaren partaidetzarik gabe. Agian gurean ez dira halako adibide larri ikusi, baina beste toki askotan ohiko jardura da.

Auzoa eraikitzeko logika honen arabera, elementu bat txertatzen da auzoan, hiria edo lurraldea dinamizatuko duena: futbol-estadio bat, ospitalea... ez dut esaten asmo autoritarioarekin egiten denik, baina bai top-down pentsamendu batekin.

Ekimen horrek, ondorioz, auzoan haustura bat ekar lezake, nahiz eta, aldi berean, benetazko auzo-identitatea sortzeko katalizadore bilakatzeko aukera izan: zure auzoaren alde borrokatzeak ere identitate hori sortu dezake.

**Zein adierazle dira aproposak auzo batek identitate komuna eta indartsua duela jakiteko, adierazle hauek identitatearen osagaitzat harturik (plano ekonomikoan, sinbolikoan...)?**

Jendearekin hitz egitea garrantzitsua da; nik, Bilboko auzoen analisia egin izan dudanean, datuak hartzen ditut aitzin: biztanleriaren egitura, datu ekonomikoak, auzoko mugak zeintzuk diren, nola garatu diren, etab. Gerora, tokian ibili, ikusi zerk ematen dizun arreta, eta tokikoekin hitz egin. Hau egiteko, ordu ezberdinetan joatea beharrezkoa da, eta talde ezberdinekin jardun: aitate-amamekin, zeintzuk informazio-iturri izugarria diren; umeekin; langileekin... Ondorioz, hasiera batean, norberaren ustez garrantzi handiena zuen horrek (plaza bat, monumenturen bat...) ez du, biztanleen arabera, halako garrantzirik.

Egindako ikerketa sozio-antropologikoko dinamika batzuetan marrazkiak erabili ditugu, jendea eskatuz beraien auzoko, edo herriko, ibilbide turistiko bat marrazteko; ez kanpotarrentzako ibilbidea, baizik eta beraientzat auzoak dituen interes-puntuak nabarmenduz, dituzten oroitzapenen iturriak.

**Hori plano sinbolikoan txertatuko litzateke.**

Erabat ados. Gero, aipatu dinamika horretan, beste buelta bat emanez gero, eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko bereizketa egiten baduzu, agerian gelditzen dira generoen arteko ezberdintasunak, ikuspegi aldetik eta sinbolikoki. Emakumeak lurraldearen jakintza handiagoa du, herriko biztanleen erreferentziak hartzen ditu oinarri tokia azaltzeko, eta gizonak, aldiz, iritzi edo sentsazio pertsonaletan oinarritzen da. Emakumezkoak erlazioen planoan mugitzen dira.

Umeekin antzeko zeozer gertatzen da; beraien herriko buru-mapa bat egiteko eskatzen diegunean, betiko lau puntuak marrazten dituzte. Haatik, puntuon kokapena eta beraien arteko distantzia zein den aztertzerakoan, norberak hiriaren perspektiba azaleratzen du.

**Etorkinen etorrera, eta horrek ekarritako espazio-bereizketa dela-eta, auzoak ghattizazio-arriskuan daude? Ghattizazio hori ekiditeko borondate publikorik dago?**

Ghattizazioa dago, nahiz eta ez luke egon behar. Eta bai, ekiditeko borondatea dagoela uste dut; zenbaitetan borondatea dago, baina ez da jakiten arazoari nola eutsi, eta beste batzuetan teknikoki arazoari aurre egin nahi zaio, baina ez dago

lehtasunen artean. Baina tamalez egon badago getthizazioa, nahiz eta etorkinak aberastasun-iturria izan, eta hiria bizitzeko modu berriak eta mundua beste modu batean ikusteko jakintza ekarri.

Ekidinezina, etorkinen metaketak dira. Londresen, adibidez, etorkin taldeek etorri berri diren etorkinak erakartzen dituzte. Ez du zertan gettho bat izan, auzoaren identitate bilakatu daiteke. Hemen, Bilbon, San Adrian auzoan, El Fuerte duzu, Mantxatik etorritako jendeak bete zuena.

**Zuzena al da, hortaz, gentrifikaziora eraman dezaketen ekimenak bultzatzea, hala nola enpresa gazte eta sortzaileei laguntza, etorkinei bestelako laguntzarik eman gabe?**

Tokikoei lagundu gabe, ez da zuzena; auzora heltzen diren “estralurtarrei” soilik laguntzen bazaie, enpresa berri horiek kokatuko diren bizpauru kaleak bakarrik aktibatuko dira, baina handik harago kanpoko jendea ez da hurbilduko auzoaren muinera. Kanpotarrentzako laguntzak zuzenak dira, baldin eta arazoaren egitura bera erasoko duen bestelako politika sozialekin badatoz, eta auzotarrak ere prozesuaren parte bihurtzen badira. Bi alderdiak nahastea oso zaila da, alde batetik hiriarentzat ekimen ekonomikoak sustatzea, eta bestetik dinamismoa eta egonkortasun ekonomikoa; jarraitutasuna behar duen lana da, alderdi anitzetatik ekin behar zaio, koordinatu, eta zeharkako jarduera bezala landu.

**Gaur egun hiriburuetakoa Europaz eta postmodernitateaz hitz egiten dugu. Nortasuna etorkizunaren fizio/ilusioa al da? Bilbok parte hartzen al du mundu mailako lehen hiriburu kosmopoliten jolasean? Horrek arriskurik al dakar?**

Egiten den guztia tokiaren benetako ezagutzatik egin behar da, ingurua, azpiegiturak, baldintza sozial eta ekonomikoak ondo ezagutuz. Plano gainean gauza asko proposatu daitezke, baina gero ideia bera orubean bertan ikusirik ezinezkoa dela konturatu gaitezke. Hau egiteko ezagutza handia behar da eta gehien dutenak, bertako bizilagunak izaten dira.

**Honetan guztian herritarrek zer paper jokatzeko dute?**

Herritarrek proiektuen definizioan hasieratik parte hartu beharko lukete. Hiriari zerbitzua ematen dioten azpiegitura asko ziur NIMBY (*Not in my backyard*) mugimendurekin topatzen direla, saihestezina baita, baina beti egon behar dira onurak edo ordainak, baina ez modu inposatzaile batean. Egia da honek lan izugarria dakarrela, eta hiritarren arazoetara gerturatzeko orduan aldaketa handia eskatzen duela, pertsonekin hasieratik egin behar baita lan. Teknikariak ohartu behar dira ez dutela bertan bizi den pertsonak baino gehiago jakin behar, teknikaria izatearen arrazoi hutsagatik. Jendeak bere auzoaz asko daki, eta hori onartu eta errespetatu beharra dago. Beste gauza bat, oso ezberdina, litzateke teknikariek eta agintariek izan dezaketen hiriaren —ez auzo bakar baten— ikuspegi orokorra. Antolamendu honen ondorioz, prozesu luzeagoak izaten dira, baina era berean, epe luze batera arazo gutxiago dakartzatza. Hiriak 10 milioi euroko aurrekontua badu, ez du diru guztia auzo batean xahutuko.

**Baina balizko 10 milioi euroko banaketa horretan egia da hirigunean, hiriaren nortasunaren aldea izanik, banaketa hori gehiago nabari dela.**

Bilboren kasuan, udalak aipatzen du, kalitateari dagokionez, ez dela gehiago inbertitzen alde batzuetan besteetan baino. Ni ez naiz horretan sartuko, baina ulertu behar da alde batzuek zerbitzuak dituztela biztanle talde handiago batentzat. Anbulatorio batean eta ospitale batean berdin inbertitu behar dela pentsatzea bezala da; Bilboko toki batzuk probintzia osoko gune garrantzitsuak dira eta beste funtzionaltasun bat izan behar dute. Auzo bateko plaza oso polita izan daiteke, baina 200 erabiltzaile inguru izan ditzake, eta, aldiz, erdiguneko plaza batek 5.000 erabiltzaile inguru. Ez naiz kalitateari buruz hitz egiten ari, plazaren funtzioei buruz baizik.

**Nortasun-erakuntza honetan zein da hirigile eta arkitektoen papera? Laissez-faire politika bat hobeagoa izango litzateke? Zer ikasi beharko luke arkitekto edo hirigile batek soziologiari?**

Nik uste dut asko hitz egin behar dela. Denek egiten dute lurzoru baten gainean lan, baina bakoitzak lan hori bere ikasketa eta izaeraren arabera egiten du. Lana egin ahala pixka bat gelditu eta atzera bota behar da. Arkitektoak bere buruari esango dio ongi ari dela, baina beti izango du arkitekto baten ikuspuntua. Bere buruari galdetu diezaioke: **artista edo soziologo** izanik, nola ikusiko nuke lan hau? Oso jolas dibertigarria izango litzateke gauzak politiko gisa ikuste.

Arkitektoen argazkietan ez da pertsonarik agertzen, traba egiten duen ezer ez da agertzen. Soziologoak, aldiz, giza egitura nabarmentzen du. “Etxebizitza bat eraikitzen noa, baina zertarako nahi da? Nor biziko da hor? Zer-nolako arazoak sor daitezke modu batera edo bestera eginez gero? Jendearen harremanak nolakoak dira?”. Arkitektoek ere horrelako galderak egiten dituzte, baina arazoak konpontzeko modu batean, adibidez: “Nik jendeak honela egitea nahi dut”. Hots, kontrola.

Adibidez: nik, arkitektoa naizen honek, bulego-erakin bat egiten dut. Bulegoak funtzionatu dezan, ekoizpen bat egon dadin, gauzak modu honetara edo bestera egin behar dira, guztia oso funtzionala izanik. Hau da, formak erabiltzailearen jarduera modifikatuko duela pentsatzen da. Arkitektoaren arabera, formaren bitartez kontrola daiteke, baina hau ez da guztiz egia. Parkeetan adibidez, oso garbi ikusten da hau. Disciplinatu duenak guztiak oso markatuak uzten ditu, guneak ondo berezituak, zubiak, eserlekuak, etb. baina gero jendeak belarra zapaltzen du. Giza ingeneriatza hori baztertu behar da eta jendeak nola jokatuko duen ikusi behar da. Ez da oztopo fisikorik jarri behar, nahiz eta arkitektoen ohitura izaten den, espazioa kontrolpean izateko.

° Ibai Gandiaga arkitektoa da.

